



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
LAURO IKASTOLA

Ikastetxearen kodea:
014561

Data:
2022-2023 ikasturtea





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Lauro Ikastola Ikastola-Eskola euskalduna da, Lauro Ikastola herri onurako familien kooperatiba da. Goitiko Antsoabiaga Bidean dago kokatuta, 2. zenbakian, Loiuko Lauroeta auzoan (Bizkaian). Bestalde, Lauro Ikastola Loiuko herrian kokaturik dago 1973. urtetik, baina jatorriz Bilboko ikastola da. Gure ikasleak Bilbo, eskuinaldea, Mungialdekoaketa Txorierrikoak dira. Lauro Ikastola itunpeko zentroa da, beraz Hezkuntza Proiektu propioa du, beti ere ikastetxe guztien modura indarrean dagoen legeak markatzen dituen baldintzak errespetatuz.

Ikastolak 3 urtetik eta Unibertsitatera sartu arteko hezkuntza maila guztiak eskaintzen ditu. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko etapetan 5 lerro daude kurtsoko. Batxilergoko etapan kurtsoko 4 lerro Guztira 1.969 ikasle daude.

Ikastolak izaera propioa du balore eta nortasun ezaugarrietan.

Ikastola ISEC altua duten familiez osaturik dago. Horrek esan nahi du bere familien gehienak errenta maila altua dutela, formakuntza maila altuarekin eta etxean ikasketa baliabideez ondo hornituta (liburuak, ordenagailuak, ikasteko gela propioa). Horrela agertzen da tipifikaturik orain arte ikastolari egin zaizkion kanpoko frogak guztietan (diagnostiko frogak eta PISA frogak).

Gaur eguneko ikastolako familien % 83,7 euskaraz dakien norbait dago eta familien % 40 biek euskaraz dakite. Kooperatibako partizipazio organuen bitartez familien parte hartzea handia da: Kontseilu Errektorea, Eskola Kontseilua, Jagolaritza batzordea, etab. Ikasleek ere parte hartzea eta inplikazio handia dute Eskola kontseiluan eta eguneroko hainbat ordezkarietan.

Hau da Lauro Ikastolako familiek ikastolagandik espero dutena (horrela adierazten dute seme-alabak Lauron sartzen dituztenean 3 urterekin): giza- baloreak landu ditzatela, euren kabuz pentsatzen irakas diezaieten, euskaraz irakats diezaieten, ikasleak arduratsuak bihurtzeko daitezela, ingelesari garrantzi handia eman diezaioten, irakasle onak, ikasle bakoitzaren garapen pertsonala jarraitzea, euskal kultura maitatzen ikas dezatela, jarduera ona, gizabidea eta gizalegea erakutsi, eroapenean eta elkartasunean indar egin dezatela, pentsaera eta erlijio askatasuna errespetatzea.

Baliabide pertsonalei dagokionez, eta irakasleetatik hasita, Lauro Ikastolako irakasle goa egonkorra, esperientziaduna eta norberaren lanarekiko atxikimendua duena da. Etengabeko formakuntzarako konpromisoa duena ikastolarekin, horretarako Formakuntza Plana eguneratzen delarik beharrezan araberak. Ikastolako helburuetako bat lidergoaren garapena da, hau da, erantzukizunak hartzen duten pertsonen igoera lortzen joatea kudeaketa aurreratua bideratzeko. Langileen batz besteko adina 43 urtekoa da.

Diseinu kurrikularrari dagokionez, indarrean dauden legeak jarraitzen dira. Une honetan LOMCE eta Euskadiko Gobernuaren Heziberri 2020 eta LOMLOE harteko trantsizioa egiten ari gara, beti ere, kompetentzietan oinarriturik. Honek esan nahi du hezkuntzaren kontzeptu integral batean zentratuz dagoela, non ez den nahikoa ikasleak jakin behar duen edukiarekin, ezpada, zer jakin behar duen egiten eta sentitzen ataletan zentratzen gara. Bere Hezkuntza Proiektuko balore edo helburuen osagaiak legeak markatzen dituen Irteera-Profilak markatutako kompetentzien maila egokia lortzeko bideratuta daude. Ikastolako Hezkuntza Proiektuak eta Proiektu Kurrikularrak bere ikasleen kompetentzien garapena sustatzen dute.

Baliabide materialei dagokionez, Lauro Ikastola ingurune natural, ireki, berde batean dago. Lauroko egituraren, etapa bakoitzak bere eraikin eremua du. Kirola egiteko eta jolasteko eremuak anitzak dira, eta gainera, etapa bakoitzeko dauden lau eraikinei gehituta kirolak praktikatzeko bosgarren eraikin bat dago, Behekosoloa Kiroldegia, lur ekintzez gain ur ekintzei aukera ematen diona. Eraikinen diseinuan momentu bakoitzeko beharrezan metodologiko eta pedagogikoak kontutan hartu dira, horrela, talde lanerako aukera ematen duten gelak daude, txoko txikietan lan egiteko, ikasleak talde handian egoteko areto nagusiak, etab. Instalazioak egokiak eta eguneratuak dira, egun gela guztietan daude IKT baliabideak, irakasle gelak ondo horniturik daude, eta guztia IKT tresnak erabiltzeko azpiegitura egoki batekin lagundurik dago.

Material didaktikoari dagokionez, oreka dago erabilitako materialen artean, ikasleek material fisiko eta digitalak erabiltzen dituzte. LH 3. mailara arte ikasleek IPADak erabiltzen dituzte arlo zehatz batzuetan, 3. mailatik 6. mailara ikasle bakoitzak bere Chromebook propioa du eta DBH eta Batxilergoko etapetan ikasle bakoitzak norbere IPADa du. Testu liburuak kontsulta modura erabiltzen jarraitzen dira klaseetan, eta irakurketa liburuak ere badaude, baina gehien bat irakasleek sortutako materialak erabiltzen dira.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastola 5 eraikinetan banatuta dago, HH, LH, DBH, BATXILLERGOA eta Behekosola Kiroldedia. Kiroldegian ikasleek Heziketa Fisikoko saioak ematen dituzte egunean zehar eta arratsaldean eta asteburutan eskolaz kanpoko ekintzak, ikastaroak, udalekuak eta urtebetzeak antolatzen dira, besteak beste. Gainontzeko eraikinetan ikasleek klaseak jasotzen dituzte eskola ordutegian. Eraikinak gelaka banatuta daude, gela mota desberdinak daudelarik. Gela guztietan pantaila interaktiboak, proiektoreak edo arbela digitalak daude. Eraikin hauetako gela bakoitzean ordenagailu bat dago, pantaila, monitore, proiektore edo arbela digitalari konektatuta dagoena. Gela arruntez gain, bikoizketa gelak eta tailer gelak daude eta bakoitzean ere ordenagailu eta arbela digitala dago. Eraikin guztietan 24 tutoretza daude eta bakoitzean, gutxienez 2 ordenagailu daude, bertan dagoen pertsona kopuruaren arabera da ordenagailu kopurua. Ordenagailuak mahai gainekoak edota eramangarriak dira. DBH eta Batxillergoko irakasle guztiek norbere IPADa dute eta LHko irakasleek Chromebookak dituzte tutorizetan. Bigarren Hezkuntzako gela guztietan Apple TV da dago eta LHko geletan Chromecasta dute. Gela eta tutoretzez gain, bulegoak daude, aholkulari, zuzendari eta idazkaritzako langileentzako eta bertan pertsona bakoitzak ordenagailu bat dauka.

Ikastolako zerbitzari guztiak birtualizatuak ditugu eta bi kabinetan gordetzen dugu informazioa guztia. Hauekin segurtasun kopiak egiten dira eta 30 eguneko tartea dugu hauek berreskuratu ahal izateko.

Ikastola osoan wifi sarea dago, guztira 7 sare daude, ikasleen eta irakasleen erabileraren artean bereizita daudenak. Ikastolak interneteko abiadura 1GB simetrikoa da. Beste linea bat ere badugu, Backupekoa 1GBkoa ere. Ikastola osoan 75 AP (Acces point) ditugu, konektibitatea bermatzeko. Horretaz gain, eraikin guztiak zuntz baten bitartez konektatuta daude. Eraikin guztiak elkarrekin konektatuta daudesare eraztun batekin, komunikazioa konektibitatea eta segurtasuna hobetzeko.

LH3. mailarik aurrera, ikasle bakoitzak gailu pertsonala du. LHko etapan Chromebooka erabiltzen dute eta Bigarren Hezkuntzan IPADa dute. Ordura arte, 1. zikloan, IPAD-a erabiltzen duten saio konkretu batzuetan. 3.LHtik aurrera baliabide fisiko eta digitalekin lan egiten dute ikasleek.

LH1. mailan, ikasleei Google Work Spaceko kontua zabaltzen zaie Lauro Ikastolako domeinupean. Irakasleek ere kontua dute bertan eta kontu honi esker, ikasle eta irakasleek Google Work Spaceko zerbitzuekin egiten dute lan. Drive zerbitzuaren Portfolio Pertsonala sortzen hasten dira ikasleak 3.mailan. Identita digitalean zaintzen dugu batx2ra arte.

Google Work Space zerbitzuez gain, ikastolan hurrengo plataformak erabiltzen ditugu: Moodle, Alexia, Erein, Sargoi, Travelers, Fiction Express, Showbie edo Idoceo.

Ikastolan bi Firewall DA ditugu, batek funtzionatuko ez balu bestea martxan jartzeko. Honi esker ikasleen segurtasuna bermatzen dugu sarean. Kanpo erasoengatik babesten ditugu eta sartzen diren web orriak seguruak direla bermatzen dugu.

Ikastolan informatika zerbitzuko arduraduna dugu, etapa guztien arteko koordinazioa eramaten duena. Horretaz gain, mantenuko 4 langileekin elkarlanean jarduten da mantenuko lanak aurrera eramaten.

Ikastolan sistema propioa dugu Lan Aginduak kudeatzeko, zuzenean mantenuko eta IKT arduradunei dispositibora heltzen zaizkienak.

Eraikinetan domotizazioa dugu, aplikazioa informatiko baten bitartez, instalazioak kontrolatzen dira kontsumo arduratsu bat lortuz eta ikasleen eta langileen segurtasuna eta ongizatea bermatuz.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Proiektuak ikastetxeari lagunduko dio gaur egun teknologikoki dugun egoeraren hausnarketa egin eta etorkizunerako helburuak ezarriko ditugulako. Proiektuari esker, teknologikoki gauden puntua aztertu eta baliabide eta lan egiteko moduak hobetzeko helburuak ezarriko dira.

Orain arte badugu bidea eginda, izan ere 2015-2016. ikasturtean Eusko Jaurlaritzatik eskaini ziguten Heldutasun Teknologikoaren auditoretza igaro genuen eta auditoretza horretan konfirmatu ziguten Heldutasun Teknologikoaren Goreneko Maila lortu genuela, beraz, orain hasiko dugun bidea ez da berria guretzako. Ikasle eta irakasleak ohituta daude bai teknologia pedagogiaren mesedetara erabiltzera, eta baita hauen erabilpenaren inguruko hausnarketak egitera ere.

Beraz, proiektu honetan parte hartzen dugu, beharrezkoa ikusten dugulako gure garapenerako eta hobetzen jarraitzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasanak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Plan honen eragilea eta arduraduna ikastolako Zuzendaritza Taldea eta informatika arloko arduraduna izango dira. Etapa bakoitzeko zuzendariak, Zuzendari Pedagogikoak, Zerbitzuetako Zuzendariak eta Zuzendari Gerenteak osatzen dute Zuzendaritza Taldea. Etapa bakoitzeko zuzendaria da etapa horretako IKT arduraduna, beraz, berak kudeatuko du etapa bakoitzeko Plan Digitala. Ikastolako Informatika arloko arduradunak kudeatuko ditu etapan arteko lanak.

Astero bilduko den taldea da, ostiraletan egingo diren bileretan eta horietan hausnartuko da egoeraz, lehentasanaz, irakasleen formakuntzaz eta baita Plan Digitalaz ere.

Bertan hausnartutakoa klaustroari helaraziko zaio etapa bakoitzeko arduradunak bere etapan egiten dituen klaustro bileretan.

Planifikazioari dagokionez, hasteko ikastetxearen diagnostia egingo da, bertan, orain arte egindako bidez hausnartuko da, lortutako zertifikazio eta agiriak eta egindako bidez. Ostean, SELFIE FOR SCHOOLS tresnaren bitartez, ikastolak gaur egun duen egoeraz hausnartuko da. Selfiak ematen dizkigun argazkian oinarriturik, ahuleziak, mehatxuak, aukerak eta indarguneak definituko dira.

Ostean, ikastolak nora iritsi nahi duen zehaztuko dituzten helburu batzuk ezarriko dira eta helburu horiek betetzeko aurrera eramango diren ekintzak zehaztuko dira.

Bukatzeko ekintzak ebaluatuko dira, helburuak lortu diren edo ez analizatzeko eta hobelerroak barneratzeko.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu honek zuzeneko eragina du Urteko Planean, izan ere, Ikastolako Urteko Planean proiektu digitalak modu horizontalean eragiten du Urteko Planean lantzen ditugun alor guztietan. Plan Digitalak, pedagogiaren mesedetan jokatzeko du Urteko Planean. Hau da, Urteko Plana eratzerako orduan alor pedagogikoak izango dira ardatzak eta alor pedagogikoa oinarritzat izanda, IPDa sortuko dugu. Gure helburua ikasleek kalitatezko konpetentzia digitala garatzea delako. Horretarako oso garrantzitsua izango da eguneroko bigilantzia teknologikoa, lan egiteko moduaren hausnarketa eta hobetu nahia. Horrek sortuko duelako Urteko Plan sendo eta aberasgarria.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastolaren errealitatearen azterketa egiteko SELFIE FOR SCHOOLS tresna erabili dugu (2022 azaroa), Hezkuntza erakundeentzako DigCompOrg markoan oinarrituta dagoena. Selfie tresnari esker irakasle, ikasle eta zuzendaritza-taldeko kideek, modu anonimoz, ikastolan teknologia digitalen erabileraren egoeraren berri emango digute.

Selfie galdetegia 3 galdetegi desberdinetan banatu dugu.

1. galdetegian Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako klustroek parte hartu dute. Zuzendaritzako 6 kideek parte hartu dute galdetegian (%100), 55 irakaslek (%100) eta LHko 3.zikloko 373 ikaslek (%96). HH3 urtetik eta LH 4. mailarako ikasleak galdetegitik kanpo utzi ditugu, LH3.mailara arte ez batiute egunerokotasunean euren gailu pertsonalik. LH3.mailan hasten dira erabiltzen, baina, erabileraren hasiera mailan daudenez, kanpoan utzi ditugu.

2.galdetegian DBHko taldeak parte hartu du. Zuzendaritzako 5 kideak (%100), 42 irakaslek (%100) eta DBH 1-2-3 eta 4.mailako ikasleak (%93).

3.galdetegian Batxillergoko taldeak parte hartu du. Zuzendaritzako 3 kide (%100), 20 irakaslek (%100) eta Batxillergoko 1. eta 2. mailako 188 ikaslek, (%80).

Selfia egin ostean, 3 txosten jaso ditugu emaitzekin, beraz, 3 txostenen hausnarketa bakarra egin dugu.

Oro har, esan dezakegu, pozik gaudela lortutako emaitzekin, alor guztien arteko batz bestea 4,1 /5 izan delako. Gainera etapen arteko puntuazioak konparatu ditugu puntuaz puntu eta antzeko emaitzak lortu dira etapa desberdinetan, beraz, emaitza orekatuak lortu ditugu.

Indargune bezala definitu ditugu 4,1etik gorako alorrak eta ahulezi bezala 4tik beherako puntuazioak. Horrela ekin diogu AMIAri.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Etengabeko Prestakuntza Profesionalean hobetu beharra, elkarren bizipenak partekatzen eta formakuntzan hobetzen.

Elkarlana sustatzea eta erabilpenaren ebaluazioa egitea.

Ebaluazio jardueretan hobetu beharra, nork bere ikaskuntza eta erabilpenari buruzko hausnarketekin.

Diziplina arteko proiektu falta.

Beste batzuek egindako lanarekiko errespetua.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Denboraren kudeaketa.

Aparatu elektronikoen zaharkitze programatua.

Sarearen eralbipen okerrak: Ziberbullinga, Groominga, Identitate ordezkatzak, iruzurrak...

Inteligentzia digitalaren erabilpen desegokia.

Pantailen adikzioa eta honek ikasleen arretarako suposatzen duen mehatxuaren inguruko hausnarketen beharra.

Merkatuko prezioen igoera.

Etengabeko berriztapen kostua eta honek dakarren formakuntza beharra.

Finantziaketa lortzeko Jaurlaritzaren menpekotasuna.

Aisialdiko IKTek suposatzen duten leihozabala eta honek euskararentzako suposatzen duen mehatxua. Ikasleek kontsumoa ez baita euskarazkoa ikastolatik irtetzen direnea.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikastetxeak duen azpiegitura eta gailuetan egiten den inbertsioa.

Ikastetxean irakasleek jaso duten hezkuntza digitala.

Hezkuntza komunitatearen komunikazioa eta lotura.

Ikastolan dagoen interneterako sarbidea.

Ikastolak diseinatutako estrategia digitala eta honen etengabeko ebaluazio eta jarraipena.

Orain arteko ibilbide luzea Plan Digitalan.

Irakasleen proiektuarekiko konpromezu maila

Zuzendaritza Taldearen egonkortasuna.

Hezkuntza Proiektuaren sendotasuna.

Plan estrategikoaren konpromezua Plan Digitalarekin.

Aniztasunaren trataeran ematen dizkigun aukerak.

Zeharkako planetan IKtek duten garrantzia.

Gure proiektua zabaltzea hedabideen bitartez.

Definituta dugu ikastolako irakasleen gaitasunen mapa eta horren barnean kompetentzia digitala definituta dugu.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Ikasleek eskolaz kanpo lantzen dituzten gaitasun digitalak.

Ikasleen maila sozio-ekonomiko altua.

Beste zentroekin ditugun kanpo-aliantzak.

Zailtasunak dituzten ikasle laguntzeko etengabe sortzen diren baliabideak.

Elkarbizitza kudeatzeko etengabe sortzen diren baliabideak.

Etengabeko berriztapena eta ikerketa.

Ikastola eta gurasoak komunikatzeko plataformak.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Ikastetxeak egin duen azpiegituretako inbertsioari esker ikasleek euren konpetentzia digitala eguneratuta dauden gailuekin garatu dezakete eta ikastolan ikasitako hori, eskolaz kanpoko eremuetara zabaldu.

Familiek daukaten maila sozio-ekonomikoari esker, ikastolan proposatzen diegun gailu eta berriztapen teknologikoekin bat egin dezakete.

Ikastolak egiten duen inbertsioari esker, aniztasunaren trataeran eta elkarbizitzan baliabideei dagokienez egiten diren ikerketaz baliatu.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Beste zentroekin dugun aliantzei esker, euren praktika onak ezagutu eta gureak hobetzen ahalegindu.

Baliabideen garapenari esker, gure formakuntza plana berriztu eta eguneratu.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Ikastetxeak duen azpiegitura eta gailuetan egin den inbertsioari esker, aparatu elektronikoaren zaharkitze programatuari aurre egin ahal izango diogu.

Ikastetxeak formakuntzan eta hezkuntzan egiten duen inbertsioari esker, sarearen eralpen okerrari aurre egiten ahaleginduko gara, ikasleak eta irakasleak hezituz.

Pantailarik gabeko espazioak sortu ikasleek adikzioa garatu ez dezaten pantailekiko.

Arreta entrenatzeko jarduerak egin, pantailek arretan duten eragina malgutzeko.

Zibersegurtasuna ardatz jarri, ikasleen segurtasuna bermatzeko.

Aisialdiko IKTek suposatzen duten euskararentzako mehatxuaren aurrean, Euskara Plan sendoa diseinatu eta aurrera eraman.

Etengabeko berriztapenaren formakuntza beharraren aurrean, formakuntza planaren inguruko hausnarketa egin eta irakasleek duten proiektuarekiko konpromezuaz baliatu.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Irakasleen formakuntza indartu beharra dugu digitalizazioko esparru guztietan, bai gailuen erabilpenan, zein baliabideen sorkuntzan eta batez ere zibersegurtasunean.

Ikasleen hezkuntza digitalean lan egin behar dugu, identitate digital eta aztarna digital positiboa sor dezaten ikasle eta irakasleek, tresnen erabil egokia egiteko.

Etengabeko berriztapen kostua eta merkatuaren prezioen igoerari aurre egitea, finantziaketa lortzeko Jaurilaritzaren menpekotasuna kontuan hartuz.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Deskriptorea	Epea	
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Hezkuntza digitala bultzatu, sarean egon daitezte arriskuen aurrean ikasle eta irakasleek arduraz jokatzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua		
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A3 Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu ditu, datuak babesteari, identitate digitalari, ziberseguri	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen artean praktika onen gida banatu	Gida	Zuzendaritza Taldea eta IKT arduraduna.	2024 ekaina	Detektatua
Ikasle eta gurasoei araudi digital bateratua banatu.	Araudia	Etapako bakoitzeko Zuzendari eta koordinatzaileak.	2023 urria	Prozesuan (%40-59)
Ikasleentzako zibersegurtasun tailerrak sortu.	Giza Baliabideak eta material pedagogikoak	Etapako bakoitzeko arduradunak	2024 ekaina	Hasita (%1-19)
Guraso eta irakasleak zibersegurtasunean formatu.	Kanpoko espezialista eta IKT arduraduna.	Etapako bakoitzeko arduraduna kanpoko formatzaile batekin.	2024 ekaina.	Prozesuan (%40-59)

GP Garapen profesionala

Helburua

Ikastolako pertsonal dozenteen %90 DigCompEdu markoan akreditatuta egotea.

Deskriptorea

GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da

Epea

2023 abendua

Adierazlea

Mota

Helmuga

GP 1.2 A1 Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digital

Ehunekotan

2023 abendua

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleek A2 ikastaroa burutzea.	Moodleko ikastaroa eta baliabide teknologikoak.	Ikastolako mentore digitala.	2023 abendua	Prozesuan (%60-79)
Ikastola barruko mikroikastaroak antolatzea.	Giza Baliabideak	Ikastolako mentore digitala.	2024 ekaina	Prozesuan (%40-59)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Gailu digitalen erabilpena pedagogiaren mesedetara egokitu.

Deskriptorea

EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.

Epea

Etengabekoa

Adierazlea

Mota

Helmuga

EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia di

Bai/Ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Galdetegi bat prestatu irakaslearentzat erabileraren inguruan hausnartzeko.	Asetasun galdetegiak batera, Google Formularioak	Zuzendaritza Taldea	2024 ekaina	Hasita (%1-19)
Galdetegi bat prestatu ikasleentzat erabileraren inguruan hausnartzeko.	Google Formularioak	Etapako arduradunak	2024 ekaina	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

AZ Azpiegiturak

Helburua

Berrikuntza teknologikoen ibilbidea jarraitu eta hezkuntza proiektuaren mesederako gure azpiegiturretan inbertsioak egin.

Deskriptorea

AZ 2.2 Ezagutza aditu pedagogiko eta teknikoek gidatzen dituzte teknologia digitaletako inbertsioak

Epea

2028/06/14

Adierazlea

AZ 2.2 A1 Ikastetxeak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearen bitartez, Hezkuntza Sai

Mota

Zenbakizkoa

Helmuga

2028 ekaina

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Geletan arbel digitalak dauden lekuetan pantalla digitalak ipini.	Materialak eta ekonomikoak.	IKT arduraduna, zerbitzuetako arduraduna eta etapako arduraduna.	2028 ekaina	Prozesuan (%20-39)
Fomakuntza eta erakusketetan parte hartu berrikuntza teknologikoen berri izateko	Giza Baliabideak	Irakasletoa eta Zuzendaritza Taldea	Etengabekoa	Detektatua
Erakunde teknologikoekin aliantzak bilatu.	Giza Baliabideak eta elkarlana.	Irakasletoa eta Zuzendaritza Taldea	Etengabekoa	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Heiburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG						
II	Hezkuntza digitala bultzatu, sarean egon daitezke arriskuen aurrean ikasle eta irakasleek arduraz jokatzeko.	2024 ekaina	Araudiak partekatuz eta egoerak konparatuz.	Zuzendaritza Taldeak eta IKT arduradunak		
GP	Ikastolako pertsonal dozenteen %90 DigCompEdu markoan akreditatuta egotea.	2023 abendua.	Akreditazioa duten begiraturaz	Mentore Digitalak		
EJ	Gailu digitalen erabilpena pedagogiaren mesedetara egokitu.	2025 ekaina	Galdetegiak aztertuz	Zuzendaritza Taldeak		
EC						
EN						
AZ	Berrikuntza teknologikoen ibilbidea jarraitu eta hezkuntza proiektuaren mesederako gure azpiegiturretan inbertsioak egin.	2028 ekainak	Inbertsioak gauzatu diren edo ez aztertuz.	Zuzendaritza Taldeak		
IB						